

Saldropo hezegunea



Ingurumen-garrantzia

Saldropo hezegunea antzinako zohikaztegi baten lurretan dago. Hura XX. mendeko 70eko hamarkadan itxi zuten. Zohikaztegiak oso hezegune interesgarriak dira naturari eta geologiari dagozkienez. PH maila urriko uretan agertzen diren hezeguneak dira. Bereziak dira esfagnoen presentzia dela-eta. Horiek zohikaztegi goroldioak dira eta, belakiak balira bezala, ur bolumen handia gordetzeko gai dira.

Hezegune hauek, Iparralderago eta ohikokoak, oso gutxi dira EAEn, eta bat ere ez da Saldropokoa inoiz izan zena bezalakoa. Urari lotutako landareak aipatzekotan, hor ditugu ihiak eta ezpata-belarrak, hala nola ur-galburuak (*Potamogetum polygonifolius*) eta estebak (*Glyceria fluitans*). Hezegunearen inguruetan zuhaitz bikainak ditugu: haritzak (*Quercus robur*), elorri zuria

(*Crataegus monogyna*), sahatsak (*Salix spp.*) eta txilar mota ugari: (*Daboecia cantabrica*, *Erica vagans*, *Calluna vulgaris*). Faunari dagokionez, aipatzekoak dira tximeleta ikusgarriak (*Papilio machaon*, *Inachis io*) eta bestelako intsektuak, nola edo hala urari lotuak: sorgin-orratzak, txitxi-burruntziak (*Zygoptera*). Bestela ere ikusgai dira ur-igel arrunta (*Pelophylax perezi*) eta baso-igel gorria.

ura

URAREN
EUSKAL
AGENTZIA

AGENCIA
VASCA
DEL AGUA

→ 2,1 km



35 min



Udalerria:
Zeanuri

Hurbileko herria:
Zeanuri (Barazar mendate)



Ingurunea ez dago arriskuetatik kanpo



↑ 640 m

↗ 37 m

↓ 615 m

↘ 37 m



Saldropo hezegunea



Non dagoen eta nola heldu


Saldropo hezegunea Bizkaiko Lurralde Historikoaren hego-ekialdeko koadrantean dago, Arratia-Nerbioi eskualdeko Zeanuri udalerrian, Barazar mendatearen inguruan.

Hasiera, Barazar mendate gaineko Barazar jatetxetik egin dezakegu (N-240) errepidean.

Barazar Ostatuaren aurrez aurre hartuko dugu pista asfaltatua. Laster batean aurkituko dugu hezegunearen eta BTT (Ubidea bederatzi koma hiru) adierazlea. Guk PR-BI-4 (GR-12) bidea hartuko dugu Saldroporantz, bat koma lau kilometrokoa, hogeita minutu oinez. Saldropo ibilbidera helduta informazio-panelak ikusiko ditugu. Ehun eta hirurogei metro eginda, bidebanatzean ezkerreko pista hartuko dugu hezegunea inguratzeko.

Handik aurrera, beste pista batekin egingo dugu topo eta guk ezkerretik jarraituko dugu.

Ondoren, zortziehun bat metroren buruan helduko gara abiapuntura. Edozein urtarotan egin daiteke bisitaldia.



Deskargatu
ibilbidea:



KML



GPX

Ezagutu ibilbide
guztiak hemen:



Wikiloc

Saldropo hezegunea



Saldropo hezegunea

[illegible]